

## **Arlo publikoari dagokionez:**

**Gizarte ongizate esparruan** (erresidentziak, etxez etxeko laguntza, eskuhartze soziala), non langileen % 95 tik gora emakumeak diren, jarraipena oso handi izan da eta kasu gehienetan, zerbitzu minimora derrigortuak zauden emakumeak egin dute lana.

**Hezkuntzan** lan egiten duten emakumeak ere grebarekin bat egin dute eta jarraipena oso handia izan da, hezkuntza publikoan emakumeen lan uztea %85etik gorakoa izan da eta haurreskoletan ia 100%,nahiz eta haurreskoletan Eusko jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoak aurreko deialdietakoak baino handiagoa izan. **Itunpeko ikastetxeetako** emakumeen artean ere grebaren jarraipena oso zabala izan da. Nafarroako Ikastoleetan %75 jarraipena eta Arabako ikastola kontzertatuetan ia erabatekoa.. **Unibertsitateko emakumeen** artean ere grebak jarraipen handia izan du: Leioa, Araba eta Ibaetako campusetan jarduera oso bajua izan da grebaren eraginez .

Aipamen berezia egin behar diogu eskoletako jantokietako langileei. Sektore honetan, bai lanuztea ia erabatekoa izan da, bai langile publikoen kasuan eta baita ere kudeaketa zuzenean lan egiten dutenen artean.

**Osakidetzan ere**, ospitaletan zein lehen arretan lan egiten duten emakumeak grebarekin bat egin dute. (Donostia, Mendaro, Zumarragako ospitaleak, Urdulizko kirolfanoa...). Gaueko txandan, adibidez, ESI Ezkerraldea-Enkarterri- Crucesen, 321 langiletatik bakarrik 5ek zeukaten greba egiteko aukera (%2k baino gutxiago). Hori esanda, Eusko Jaularitzako Lan arloak ezarritako gehiegizko zerbitzu minimoak grebaren intzidentzia asko gutxitu dute. Horri gehitu behar zaio Osakidetzak zerbitzu minimo horien inguruan egindako intepretazioa, kasu guztietan lanean dauden plantillak handitzeko asmoarekin eta greba eskubidea mugatzeko asmoarekin.

**Udal eta foru-aldundietan** ere lan egiten duten emakumeak grebarekin bat egin dute eta jarraipena handia izan da. Aipatzeko EAeko 3 hiriburutan (Bilbo, Gasteiz eta Donostian ) non jarraipena oso handia izan den. Hiru herrialdeetako diputazioan ere jarraipena masiboa izan da. IFASen zerbitzu minimoak bakarrik egin dira.

Herri askotako udalak ere itxita egon dira (Antsoain, Barañain, Lea Artibai, Azpeitia...)eta sakanako tokiko administrazioa ere bai.

**EAeko Administrazioan** eta **justizia arloan**, erantzun zabala izan du grebak emakumeen artean. Zehazki, Eusko Jaurlaritzan %68 baino altuagoa izan da.

Aipatzeko **Eusko Tren,EITB eta Metro-Bilbao** bezelako enpresa publikoetan lan egiten duten emakume guztiak grebara batu dira bakarrik zerbitzu minimoak betetzera derrigortuak izan diren emakumeak lan egin dutelarik. Irratia eta telebistan bakarrik informatiboak, musika eta aurrez prestatutako programak eman dituzte, ez da egon

zuzeneko emanaldirik.

## **Zerbitzuen alorrean**

**Merkataritza alorrean.** Jarraipena handia izan da, bai ehungintza alorrean eta baita ere elikadura alorrean (BM, Dia, Carrefour, ...). Denda asko egon dira itxita lau hiriburuetan eta herri askotan. Aipagarria Gipuzkoako LIDL supermerkatu guztiak itxi egin direla. Merkatal gune handietan, egun osoko grebak egin ez diren tokietan, lanuzteak eta elkarretaratzeak egin dira grebari atxikimendua erakusteko.

**Telemarketing** alorrean ere jarraipena handia izan da. Adibide gisa, Atento eta Lanalden enpresak aipa ditzakegu, sektore honetako enpresa handiak.

**Udal polikiroldegi** asko ere itxita egon dira. Adibidez, Zarautzen.

**Garbikuntza alorrean** grebaren jarraipena garrantzitsua izan da. Aipagarria eraikin publikoetako garbitzaileak (udalak, eskolak, ...).

Kutxabanken emakumeen portzentai esanguratsu batek greba egin du era berean.

## **Industria alorrean**

Kontserberetan grebak jarraipen handia izan du. (Conservas Zallo, Serrats, Dentici,...)

Enpresa industrialetan, nahiz eta gizonak izan gehiengoak, emakumeek planto egin dute. Adibidez:

CAF, CIE Legazpi, Ojmar, Norma, Hine Goierri, Urkabe Benetan, Cementos Lemona, BST Rods Goierri, Bombas Itur, Natra, Ezpeleta, Alestis, Aernnova, Mecauto, Tenneco Automoción, Lavandía Indusal ...

Eta enpresa batzuk itxi behar izan ziren: Orkli kooperatiba eta Nafarroako Kybse